



PRENTSA OHARRA

Lelo horrekin kanpaina bat abiaraziko da asteburu honetan Bizkaia osoan

Caritas Bizkaiak “LAN duin, bidezko eta integratzailearen” aldeko apustua berretsi du, Basauriko ‘ARIZ zentro’ berriaren inaugurazioarekin.

- “LAN baten atzean enplegu bat baino askoz gehiago dago”; hori da Caritasen Enplegu eta Ekonomia Solidarioaren Arloak asteburu honetan Bizkaiko gizarteari osoari helarazi nahi dion ideia.
- Gizarte babesgabetasun egoeran dauden 40 pertsona ari dira “Centro ARIZ Zentroko” lan-aurreko tailerretan. Zentro hori Basauriko Elkartegian kokatuta dago.
- Ekitaldi honen bidez, Caritas Bizkaiak hemendik urte amaierara burutuko diren jarduerari ekingo die, “justiziaren alde” lanean 60 urte daramatzala ospatzeko.

Ariz (Basauri), 2016ko apirilaren 8a.- Ostiralean, Caritasek “ARIZ” enplegu-zentro berria inauguratuko du Basaurin (Bizkaia). Bertan izango dira Mario Iceta (Bilboko Gotzaina), Carlos Bargas (Caritas Bizkaiako Zuzendaria), Andoni Busquet (Basauriko Alkatea), Teresa Laespada (Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Diputatua), Óscar Seco (Gizarteratze arloko Foru Zuzendaria), Juan Ibarretxe (Enplegurako eta Diru-sarrerak bermatzeko Prestakunza zuzendaria) eta Asier Iragorri (Basauriko Gizarte Politika arloko zinegotzia), beste batzuen artean.

Caritas Bizkaiaren "Enplegu eta Ekonomia Solidarioaren" arloa:

Nagusi den enplegu-ereduaren inguruan gertatzen ari denean eta lan duin faltan zentratuko da gure ahalegina; horiek baitira pobrezia, bazterkeria eta gizatasun-eza sustatzen dituzten faktore erabakigarriak. Caritas eta Bizkaiko Elizak berretsi egin dute pertsonen laguntza ematen eta bizia bere osotasunean bizi ahal izateko egindako lan duinaren aldeko konpromisoa. Era berean, erakundeek eta gizarte osoak lanean sakondu dezaten eskatu dute, gizarteko pertsona babesgabeen zerbitzura egon gaitezen.


Gizarteratzean zentratutako espazio eta modu berriak sortzearen eta enplegu duinaren aldeko apustua egiten dugu. Laneratze eta ekonomia sozial eta solidarioko ekimenak bideragarriak dira eta adibide positiboak eskaintzen dituzte, pertsonen zerbitzura egongo diren beste enplegu eta ekonomia bat posible direla erakusten dutenak. Caritas Bizkaiaren Enplegu eta Ekonomia Solidarioaren arloak **2.847** pertsonari eman zien laguntza (%70 emakumeak) **2015**ean. Horietatik 61 pertsonak lan-aurreko dispositiboaren laguntza jaso zuten, Ariz Zentroan daudenen modukoak; beste 588 pertsonak Lanbiderekin elkarlanean emandako "orientazio orokor eta berezituaren" zerbitzua jaso zuten eta gainerako **1.755** pertsonak "Kolokazio agentzia" propioarena (**216** pertsonak lana lortu zuten eta 500 eskaintza kudeatu ziren).

Gainera, Caritas Bizkaiak prestakuntza jarduerak sustatzen ditu pasa den urtean onura jaso zutenentzat; guztira 54 pertsona. Horrela izanik, zerbitzu-sektorean %70eko laneratzea lortu zen.

Horrela izanik, **2015ean Caritasek 341 pertsona laneratzea lortu zuen.**

Azkenik, aipatu behar da ekonomia solidarioko ekimenen aldeko apustua egin dela gizarteratze-enpresa eta enpresa solidarioen sustapenaren bidez (Koopera, Lapiko catering, Zaintzalan, Aukerlan eta abar). Horietan, kontratutako 329 pertsonak parte hartzen dute eta sortutako lanpostu berriak 37 dira.

ARIZ zentroko (Basauri) "Lan-aurreko tailerrak":



ri honen bidez, Caritasek baliabideak dinamizatu egin tu babesgabetasun edo gizarte-bazterkeria arriskuan n pertsonen gizarteratze eta laneratzea bideratzeko.

ela, **laneratzea** prozesu zabalago baten barruko ibilbide alertzen dugu, hau da, gizarteratze prozesuaren barneko de gisa. Era berean, ulertzen dugu prozesu hori azken tan ongizate-maila murriztu zaien pertsoneri laguntzeko dela eta ezinbestekoa dela gizarteratze arloko ekimenak ko.

Arlo horretan, Caritasen proposamenaren helburua zera da: **lan-aurreko tailerren** bidez iraupen luzeko langabezia egoeretan esku hartzea, gizarte eta lan arloko ahalmenak berreskuratu behar diren kasuetan bereziki, bai galdu direlako, bai izan ez dituztelako, lana bilatzeko helburua lorgarri egiteko. Pertsonak lanpostuetara hurbiltzea da kontua, aurretik porrot uneetara lotutako eremu batean lorpen txikiak izateko.

Ariz zentroko lan-aurreko tailerretan Bizkaiko 20 eta 55 urte arteko **40 pertsona daude dagoeneko**, iraupen luzeko langabezia egoeran daudenak eta une honetan bestelako laneratze-bide batzuetatik abiatzeko zailtasuna dutenak. Gainera, orokorrean, "gizarte eta lan arloko trebetasunak" landu behar dituzten pertsonak dira; beren egungo egoera hobetzeko ilusioa daukate eta tailerretan parte hartzeko konpromisoa hartu dute. Beren gizarteratze-

ibilbidea Caritaseko edo beste gizarte erakunde edo Administrazio bateko gizarte langile batekin kontrastatzen da.

Lan-aurreko bi tailer horien (heziketa eta laneratze arloak) **helburuak** honakoak dira: enplegura bideratutako aktibazio-mailak eta lan arloan modu autonomoan moldatzeko gaitasuna garatzea eta beren beharrianetara egokitutako prestakuntza eta enplegu ibilbide batean txertatzea.

Pertsona bakoitzak lan eta gizarte arloko ohiturak eta gaitasunak berreskuratu edo bereganatzen ditu Tailerreko jarduera produktiboaren bidez (manipulazio eta mekanizazio arloko egitekoak); horrela, tutoretza saioen bidez, pertsona horiek lanerako aukerak hobetu eta autoestimua modu positiboan lantzen dute, pertsonen arteko harremanetarako eta lanerako motibazioa ere sustatuz eta "laneratzeko plan pertsonala" garatuz. Horren bidez helburu zehatz bat markatzen dute eta beren lan bilaketa aktiboaren plangintza eta jarraipena egiten dute.



Caritas Bizkaiaren Ariz Zentroa – Basauriko Elkartegia, 17. Lantegia – Cervantes etorbidea - 48970-BASAURI – Tel. 944024759

Caritas Bizkaiaren “ENPLEGU KANPAINA”:

“Lan baten atzean enplegu bat baino askoz gehiago dago”. Hori da Caritasen Enplegu eta Ekonomia Solidarioaren arloak apirilaren 9 eta 10ean Bizkaia osoari helarazi nahi dion ideia. Gizarte Komunikabideen bidez eta 300 parrokia eta Gurtza-zentroren bidez egingo du. Azken horiek LANAREN inguruko sentsibilizazio jarduerak burutuko dituzte, lan bidezko eta duina gizarteratzeko funtsezko elementua dela ikusarazteko.

Carlos Bargosek, Caritas Bizkaiako Zuzendariak, zera adierazi du: "**Caritas Bizkaian** arreta handiz jarraitzen dugu inguratzen gaituen errealitatea, eta kezka ohartu gara, itxuraz zenbait adierazle ekonomikorik hobera egin duten bitartean, kalteberatasun handiengan bizi diren pertsonen egoerak ez duela hobera egin". Horrela jarraitu du: “Kanpaina honen bidez, **lanari, edozein lana motari lotutako geure bizi-esperientzia propioa berrikusteko eskatzen dugu.** Ziurtasun osoz, onartu egingo dugu gure eguneroko zeregina atsegina bada, poztasuna, konfiantza eta zentzua ematen dizkigula.

Ordea, eguneroko zeregin horrek gizatasuna kentzen badigu, gure ilusioak mindu eta etorkizun pertsonal zein familiarra lausotuko dizkigu. Horregatik, **“PRAKTIKATU JUSTIZIA”** ekitaldi honetako leloa zehazte aldera, **enplegu bidezko, duintan eta integratzailearen alde lan egiteko beharra proposatzen diogu Kristau Komunitateari**, pertsonen euren bizi-proiektuak duintasunez garatzen uzten ez dieten lan horiek salatuz (lanbide ezegonkorrak, partzialak, prekarioak, edonolakoak...).

Caritaseko Zuzendariak, amaitzeko, gogorarazi zigun **Frantzisko Aita Santuak** zera esaten digula: *“lan sortzaile, libre, parte-hartzaile eta solidarioaren bidez, gizakiak bizi-duintasuna adierazi eta handitu egiten du”* (EG 192).

Azkenik, eskatzen digu **“duintasun hori zaintzeko**, babes ekonomiko nahikoa ematen duen eta pertsona guztion parte-hartzea bermatzen duen lanari lehentasuna emateko”.



Caritas Bizkaiaren 60º. Urteurrena:

Ekitaldi honen bidez, Caritas Bizkaiak hemendik urte amaierara burutuko diren jardueren ekingo die, “justiziaren alde” lanean 60 urte daramatzala ospatzeko.



2016an hainbat jarduera burutuko dira; solasaldiak, mahai-inguruak, kultur jarduerak, ikus-entzunezkoak, kanpainak, kontzertu solidarioak... hainbat ekitaldi boluntarioekin, kristau komunitateekin, bazkideekin, administrazio eta enprekin, komunikabideekin eta abar. Hori guztia, zera gogorarazteko: pertsona babesgabeenei babesa ematen jarraitu behar dugula eta berdintasuna eta justizia soziala sustatu, bai gure inguru hurbilean, baita maila globalean ere.

Harremana: Carmelo Corada – Caritas Bizkaiako Komunikazio Saila
ccorada@caritasbi.org 94 402 00 73 (99) 665 72 38 96 www.caritasbi.org